

SARRERA U  
BERTAKOAK E

PROHIBID  
PERSONA

ERRETARA  
PERTSONENTZAT  
O EL PASO A TODA  
AJENA A TALLERES

# astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

15.zk 2021 • 5€



BA DA!

**56. DURANGOKO AZOKA**

2021eko abenduaren 3tik 8ra

[www.durangokoazoka.eus](http://www.durangokoazoka.eus)





# AURKIBIDEA | astola

Durungaldeko urtekaria. 2021



astola  
ikerketa eta historia

Astola iritzi orori zabalik dagoen aldizkaria da, horrek ez du esan nahi artikuluen sinatzaileekin bat datorrenik.

## **Erredakzioa, publizitatea eta administraritza:**

Gerediaga Elkarte  
Larrasoloeta, 3 48200 Durango

Tel. 94 681 80 66

E-mail: [gerediaga@gerediaga.eus](mailto:gerediaga@gerediaga.eus)  
[www.gerediaga.eus](http://www.gerediaga.eus)

**Koordinatzailea:** Txelu Angoitia

## **Erredakzio kontseilua:**

Jon Irazabal, Izaskun Ellakuriaga,  
Nerea Mujika

**Argazkia:** Txelu Angoitia

## **Publizitatea eta administraritza:**

Beñat Gaztelurrutia

## **Dokumentazioa eta banaketa:**

Esther Garcia, Esther Soto

## **Diseinua eta maketazioa:**

Biko komunikazioa (Durango)

**Inprimategia:** Gertu koop.

**Lege gordailua:** SS-1525-07

**ISSN:** 1888-234X

© Argitalpen honena, Gerediaga  
Elkarte 2021



© Testuak eta argazkiak, egileenak

[www.gerediaga.eus](http://www.gerediaga.eus)



## **6 | LABURREAN**

Durungaldeko urteko kultur kronika laburra: Amankomunazgoaren 50. Urteurrena, lurretako abadetxea eta Euskal Jaiak, Arripausuetako presa, Zaldibarko Parkeko Hotela eta Berrizko organoaren mendeurrena



## **22 | DURANGALDEKO BASOEN ARGAZKIA**

Zein baso mota nagusitzen da eskualdean? Galtzen doaz baso-lurrak gurean? Eukaliptoen landaketak zenbat zabaldu dira Durungaldean? Ze baso mota daukagun eta basoaren kudeaketaz dauden ikuspegi ezberdinak laburbildu dira.

**Izaskun Ellakuriaga**





### 40 | LA CAPILLA SIXTINA DE DURANGALDEA

El artista Juan de Aranao acometió en 1928 la decoración de la capilla del Hospital Psiquiátrico de Zaldibar, dejándonos un legado artístico que, a día de hoy, nos asombra.


**Itxaso Martelo - Sonia Polo - Enrique G. Arza**



### 76 | AFINIDADES ELECTIVAS. LA IMAGEN DEL PÓRTICO DE SANTA MARÍA EN LA PRIMERA MITAD DEL SIGLO XX

En la primera mitad del SXX, el pórtico de Andra Mari de Durango fue inmortalizado por numerosos pintores y fotógrafos, atraídos por su belleza y pintoresquismo.

**Víctor Arrizabalaga Salgado**



### 58 | ELORRIO, HARRIA, EGURRA ETA BURDINA. PIKETATIK SARRAILGINTZARA

Industriak hiribilduan historian zehar izan duen garapenaren erradiografia da lan hau.

**Javier Puertas Juez  
Josune Aranguren Zatika**



### 94 | MUSIKA EZ DADILA GELDITU. DURANGALDEKO MUSIKA ETA MUSIKARIAK

Eskualdeko egungo musika mugimenduaren eta egoeraren hausnarketarako idazlana da, musikarien iritzietatik abiatuta.

**Iban Gorriti**






## 110 | LAS MIL CARAS DE OIZ

Frente a las espectaculares peñas de Anboto, el monte Oiz, con su apariencia modesta, oculta una personalidad poliédrica y llena de historias.

**Marta Aranbarri**

## 126 | BARRUKO IBILBIDEAK

Kulturarekin loturiko bost gonbidatuk bidezidorretatik eramango gaituzte, sakoneko bidexka apaletik.



## 140 | UN PATRIMONIO COMÚN. LOS GRS POR EL DURANGUESADO

Cuatro senderos de Gran Recorrido (GRs) se adentran en tierras de Durangaldea, cargados de naturaleza y cultura.

**Eduardo Gaviria - Jose Mari Macías**

## 156 | BABEL DORREA. MIGRAZIO-MUGIMENDUEK DURANGALDERA EKARRITAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNA

Munduan zehar gertatzen den fenomenoak eskualdean nola eragiten duen ezagutzeko balio du arlo soziolinguistikotik burutuako lan honek. Gaur egungo migrazioaren ezaugarri nagusia migranteen jatorrian eta hizkuntza-aniztasunean dago.

**Belen Uranga**





DURANGALDEAN  
EUSKARAZ  
BIZI.







Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa

Mancomunidad  
de la Merindad de Durango








**30 de setiembre.** *Hasta la naturaleza coopera con un tiempo hermosísimo y un sol esplendido a dar brillo a la segunda fiesta euskara.*

*A la misa solemne asiste el ayuntamiento de Yurreta acompañado del entusiasta bascófilo Mr. d'Abbadie (...). En el palco del jurado se hallaban Mr. d'Abbadie y su señora con el loro y la amable y simpática señorita de Ampuero que servía de intérprete a la señora de Abbadie; (...) D Julián Unamuzaga, alcalde de Yurreta, D José de Bernaola, de Durango (...) un inglés muy aficionado a aprender el vascuence y otras personas que no recuerdo.*




**Antoine Thomson d'Abbadie-k 81 urte zituen lurretara etorri zenean.**



 lurreta, San Miguel eguna, 1891. Ignacio Landazuri. (BNF)



**"Cuando llevaban cinco tantos se han hundido 5 gradas del tendido pero con tan buena suerte que no ha resultado herida ninguna persona"**



**1 de octubre.** Como todas las cosas de este mundo tienen su término así lo han tenido las fiestas euskaras que con tanta animación y alegría acaban de celebrarse en Yurreta.

A las tres y media, el gran partido de pelota anunciado para coronar debidamente el fin de estas fiestas, en el frontón de Ezkurdi donde se ha improvisado un tendido de asientos cerrando este frontón, del que una de las paredes forma fachada con la casa-fonda de D. Juan María de Bengoa. Cuando llevaban cinco tantos se han hundido 5 gradas del tendido pero con tan buena suerte que no ha resultado herida ninguna persona ni con ninguna contusión. Según me han informado, Mr. de Abbadie ha entregado a Lagartijo y compañero las 500 pesetas que en dos premios anunciaba el progra-

ma [...]. Dieron pues fin las fiestas euskaras. Y por consiguiente yo también doy por terminada la incompleta reseña de cuanto en las mismas ha ocurrido pero antes [...] doy en mi nombre y en el de todos las más expresivas gracias a Mr. Abbadie, deseándole muchos años de vida para que continúe tan entusiasta por las sencillas costumbres euskaras como hasta aquí [...].

Antoine Thomson d'Abbadie-k 81 urte zituen lurretara etorri zenean. Esploratzailea, geografoa, lingüista eta astronomoa zen. Era berean, euskal kulturaren mezenas eta sustatzaile nagusia ere bazen, eta euskarari buruz argitalpen asko idatzi zituen. Munduan zehar bidaiatu ostean, Iparralden kokatu zuen bere bizilekua, bere aitaren jaioterrian eta Abadia Jauregia eraiki zuen. 1897an zendu zen.

LABURREAN



JON IRAZABAL

# ARRIPAUSUETAKO GATAZKA

**Ez da lehenengoz gertatzen,  
gehiagotan ere ikusi dugu; kultur  
ondarea babestu beharrean higiezin  
negozioak lehenesten dira.**

**A**zken hamarkadatan, izendun euskal arkitektoek eraikitako elementu arkitektoniko interesgarriak bota dira eta interes gabeko etxebizitza blokeak eraiki dira.

Durangoren garapenean industriak eta trenak berebiziko garrantzia izan dute, baina gaur egun, izan den industriaren ia ondare arkitektoniko guztia galduta dago. Orain dela gutxi, sei etxe-dorre eraikitzeko asmoarekin, 1880. urtean “Ferrocarril Central de Vizcaya” izenarekin bere ibilbidea hasi zuen azpiegitura desagertu da: tailerrak, biltegia, kotxe-tokia eta geltokia bera.



📷 Arripausuetako presa.

Hurrengo hilabeteetan, berriro ere, hirigintza ekimen bati mesede egiteko, Arripausuetako presaren zati bat eta “Deabruaren zubia” izenarekin ezagunagoa den zubi-akueduktua botako dute. Azken hau 1860. urtean Gallanda ingurutik Durangora ura eramateko eraiki zen azpiegitura-hidrauliko garrantzitsuen zati bat da

lurretako udalak ez ditu ondare hauek bere arau subsidiarioetan babestu beharreko elementu moduan jasotzen. Durangoko Udala ahalegindu da URA agenzia-rekin ondarearen babesa adosten. Azkenean, lurretari dagokion presaren aldea eraitsiko dute, hurrengo belaunaldiei mutilatutako presa baten arrastoak utzita. Zubi-akueduktuaren kasuan, desmuntatu egingo dute oraindik zein kokagune izango duen zehaztuta izan barik.

Gaur egun elementua bera babestu beharrean, inguru-nea ere babestu beharra ikusten denean, bidezkoa da kultur-ondarea bera mutilatzea? Eraikinen fatxadak bakarrik babestuz, kultur-balio gabeko antzerki-dekoratu bilakatzen gabilta gure herri eta hiriak. Gure ondarea etorkizuneko belaunaldiei transmititzea derrigorrezkoa izan beharko litzatekeenean, ohitura bihurtu da, arau subsidiarioetan, aurretik “babestutako ondare” modura adostuta egon arren, lekuan lekuko udal gobernu eta udalbatzaren esku uztea aldaketak eta ondareen etorkizuna bera.



LABURREAN

JON IRAZABAL  
IZASKUN ELLAKURIAGA

# DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOAK 50 URTE

**G**erediaga Elkartek bultzatutako bizpahiru urteko prozesuaren ondorioz, 1970eko abenduaren 2ko Estatuko Buletin Ofizialean, Francoren dekretu bidez, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren sorrera argitaratu eta indarrean sartu zen. Hilabete batzuk beranduago, 1971ko otsailaren 13an, Durangoko udaletxean, erakundearen osaketa bilera egin zen.

50 urte beteta ditu, beraz, erakundeak. Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Izurtza, Mañaria, Atxondo eta Zaldibarrek sortu zuten. Sorreraren berri ematen duen buletin ofizialean azaltzen denaren arabera, udal eskumenekoak ziren zerbitzu batzuk ematea zen helburu nagusia kudeaketa ekonomiko eraginkorragoa lortzeko.

50 urteak beteta, orain, aldaketa handia bizi du Amankomunazgoak. Orain arte, Abadiñoako Astola auzoko Zubiaurre etxeko bulegoak lekualdatu egin dituzte udan.

Astolako auzitegi-etxea (Zubiaurre) Bizkaiko Foru Aldundiaren jabegokoa da eta erakundeak Gerediaga Elkarteari, Amankomunazgoari, Euskal Herriko Herri Kirolen Federazioari eta Euskal Pelota Federazioari utzitako eraikina da.



 Astolako auzitegi-etxea 80. hamarkadan.

## Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Izurtza, Mañaria, Atxondo eta Zaldibarrek sortu zuten.

Astolako Zubiaurre etxeak 1876an bere funtzioa galdu egin zuen, Foruak deuseztatzearekin. Baina 1921era arte egon ziren auzitegi-etxean, ordura arteko funtzioa betetzeko erabilgarri ziren merinaldeko zigilua, eskribania eta merinoaren aginte makila besteak beste, hainbat dokumenturekin batera. Horiek guztiak Gernikako artxibora eraman zituzten. Horrekin batera, ordura arte kartzela izan zeneko zepoak eta oin-bilurrak Bilboko Euskal Museora eraman zituzten.

Gaur egun, paperak Bizkaiko Foru Aldundiko artxiboan kontserbatzen dira. Auzitegi-etxeari eta kartzelari lotutako objektuak, berriz, Astolan bertan daude. 1988an etxearen eraberritzea egin zenean ekarri ziren bueltan, eta gaur egun Zubiaurre etxean dagoen kartzela izan zeneko ziegako erakusketa txikiko parte dira.



📷 Merinaldeko zigilua, kartzelako lehioa eta behean zepoa eta oin-bilurrak.



LABURREAN



MARKEL ONANDIA

# IURRETAKO ABADETXEA

## BERRIRO ERE ZABALIK HERRIAK ERABILI DAGIAN

**A**badetxea espazio esanguratsua da lurretan, ha-markadetan zehar eman duen aterpeagatik eta plazan duen kokalekuagatik. 1739an eraiki zuen udalak herrian zeuden abadeei bizilekua eskaintzeko helburuz, euren zerbitzua ematen zuten bitartean etxea eduki zezaten. Abadeek beharra zuten bitartean erabiliko zutela, Jon Irazabal historialariak eskuratutako hitzarmen zahar hartan ageri denez. Hala ere, 1898an parrokiak bere izenean erregistratu zuen eraikina.

Gerora, 1964an, etxearen historia eraldatuko zuen gertaera bat jazo zen: Julen Kaltzada etorri zen herri-  
ra. Denboragaz jende askoren lagun handia, estimu-  
koa, egin zen parrokoa. Izan ere, sasoi hartan zenbait  
gaztek batzartzeko leku falta zuten, eta Julenek bere  
etxeko -Abadetxeko ezkerreko parte- atea zabaldu

zizkien. Frankismoaren azken kolpeen aroan, gauzak aldatu gura zituzten gazteak ziren, *Gazte gera gazte, eta ez gaude konforme* abesten zuten haiek. Dinamika sozialen eferbeszentzian, Julenen etxea hainbat talderen etxe ere bihurtu zen: Herri Gaztedirena, dantzariena, Jai Batzordearena, Gerediagarena... AEK-ko gau eskolak eman ziren bertan, eta ikastolako batzarrak ere egin ziren, besteak beste. Julen Kaltzada, Zamorako apaizen kartzelara eroan eta gero, Gerediagak elkar-gune hari babes legala emateko ekarperna egin zuen, bere egoitza lez izendatuta.

### Abadetxea, Burgosko prozesuan protagonista.

Kaltzadak zabalik uzten zituen etxeko atea, eta horren ondorioz epaitu zuten 1970ean Burgosko prozesuan, ustez ETAko kide batzuei lo egiten uzteagatik.

**Sasoi hartan zenbait gaztek batzartzeko leku falta zuten, eta Julenek bere etxeko  
-Abadetxeko ezkerreko partea- ateari zabaldu zizkien**



📷 Julen Kaltzada gazteekin, 1966ko San Migel egunez. Goiuri Sopelanaren artxiboa

*Umezurtzen aberria* memoria liburuan hurrengo pasadizoak kontatzen du, bere etxeko bizitzaren erakusle dena: “Etxera joan eta neure gelako ohean jendea lo aurkitu nuen. Alboko gelara joan eta, han ere, jendea lo. Nik zer egin behar dut orain? Seisientosa hartu eta Matienako San Blas ostatura lo egitera joan nintzen”. Mikel Antzaren *Arroz Urez* liburu berrian ere irakur daitezke Julenek Burgosen eta Abadetxean izandako pasadizoak.

Julenen ostean, beste abade batzuek ere jarrera irekia eduki zuten herri mugimenduekin. 80ko hamarkadan, Martin Aranbarrak Abadetxearen erdiko partea zabaldua, Aurrera Begira taldekoek ume eta gazteentzako aisialdi ekintzak eskaini zituzten. 1999an, Gaztetxe izateko okupatu zenean, Jon Onaindia abadeak oniritzia eman eta zazpi urtez hartueman adeitsua eduki zuen gazteekin. Abadetxeko eskumako partean zeukan bulegoa, jendeari beti laguntzeko prest zegoen Jonek.



Frankismoaren azken kolpeen aroan, gauzak aldatu gura zituzten gazteak ziren,  
*Gazte gera gazte, eta ez gaude konforme abesten zuten haiek.*



📷 Mikel Sopolana eta Esther Izaren eskontza, 1970. Goiuri Soplanaren artxiboa.

2006ko abenduan su hartu eta gero, hamalau urtez hutsik egon da lurretako Abadetxea. Lurreta Plazaratu dinamikak eraikina herriko bizitza soziokulturalerako erabiltzeko eskaria egin zion Gotzaindegiari -2012an teilatua konpondu zuen azken horrek-, 27 elkarteren eta 500 bat herritarren babesagaz. Hileetan zehar erantzunik jaso barik, azkenean herritarrak bere kabuz hasi ziren erabiltzen 2020ko urrian. Geroztik, Laxiar irrati librea ipini dute martxan, Gaztetxea atondu dute, liburutegi bat eskura dago, feminista gazteen topagune izan da, Sorkuntza Ganbara abiatzera doa... Abadetxeko ateak berriro ere herriari zabalik daude,

Julen Kaltzadak Burgosko epaiketean esan eta bere etxea zeneko horman margoturiko berbei jarraituz:

**Ha etxea ez da nirea  
 herriarena baño,  
 ze berak emon daust.  
 Horregatik beti dago zabalik  
 herriak behar dabenean  
 erabili dagian.**



© 1992ko Txixiburduntzi jaia. Goiuri Sopolana / Behean: 2020ko urria. Abadetxearen irekiera.



LABURREAN



XABIER ARANA

# 100 URTE BETE DITU BERRIZKO SAN JUAN EBANJELARIAREN PARROKIAKO ORGANOAK

**P**edro Abaitua organojolea zela saldu zen organo zaharra, alboko sarrerako ate aurrean egon zena. Gaur egunera arte San Juan Ebanjelariaren parrokiaren dagoena, berriz, 1921. urteko irailaren 18an doantzan eman zuen Rosario Gonzalez de Salazar, Berrizko markesak, alarguna zela. Bernardo Gabiola berriztarra jo zuen inaugurazioan.


Berrizko markesgoa 1900. Urteko ekainaren 28an sortutako nobleen-titulua da. Alfonso XIII. erregeak Eduardo de Aznar y de la Sota industria gizon eta ontzi-gizonaren mesederako sortu zuen. Bere izendapenak Berrizko herriari erreferentzia egiten dio. Eduardo Aznar y Tutor, Berrizko bigarren markesa izan zen (1860-1908) eta Rosario Gonzalez de Salazarrekin ezkondu zen.

Berrizko markesak oparitutako organoa Juan Melcherrek egindakoa izan zen. Jatorri alemaniarrekoa zen, baina izen hori hartu zuen Espainiara lanera etorri zenean. Walcker etxean lan egin zuen eta 20ko hamarkadan musika tresna garrantzitsuen diseinuan parte hartu zuen, esaterako, Eibarko San Andres parrokiako orga-

noa (1922), Gasteizeko San Pedrokoa (1925), Barakaldoko Munoa Jauregikoa (1917-1922) edota Burgoseko San Lesmes-en dagoena (1925).

I. Mundu Gerra bitartean utzi zuen Alemania, lau enpresa ezberdinetan lan egin zuen 20 urteren barruan, batzuetan bere kontura ere bai. Bere organoak zaletuen artean oso ezagunak ez badira ere, organo-joleek oso ondo baloratzen dituzte berak egindako musika-tresnak.



 B. Lasuen, berrizko organojolea.

Zoritxarrez, berak diseinatutako organo asko desagertu egin dira; aipagarriena, Madrileko Gran Viako Musika-ren Jauregian egon zena. 1932. urteko azaroaren 22an sutea izan zen, organoa hondatuz. Ramon de la Sotaren jабegokoa zen Bilboko Ibaigana Jauregiko organotik ere, pieza original asko galdu egin ziren.

Berrizko organoa, tamainu txikiko musika tresna da. Bi eskuko bi teklatu ditu, 61 nota guztira. Eta horrekin batera, 30 nota dituen pedal-teklatura. Bederatzi erre-gistro ditu, baina 11 soinu ezberdin egiten ditu. Trans-misioa, berriz, mekaniko-neumatikoa da, eta bigarren teklatura espresiboa da.

Berrizko organoaren 100. urteurrena gogoratzeko testu labur honetan, Pablo Cepeda Gutierrezek 2020. urtean *Klassikbidea* aldizkarian argitaratutako artikulua eta Bizkaiko Foru Aldundiak 1992an kaleratutako *Bizkaiko organoak* argitalpenetik jasotako datuak laburbildu dira.



📷 Berrizko organoaren ikuspegi orokorra eta detailea.



LABURREAN



GEREDIAGA ELKARTEA

# ZALDIBARKO PARKEKO HOTELA

## ONDARE HISTORIKOAREN ELEMENTU GARRANTZITSUA

**X**IX.mendearen amaieran elizatearen nortasuna markatu zuen iraganaren parte dela uste du Gerediaga Elkarteak. Udalak eraikina bera eraisteko asmoa izan dezakeela komunikabideetan irakurri eta entzun ahal izan dugu aurten. Eusko Jaurlaritzak ez du eraikina babesten, baina udal-mugartean kokatutako higieziei eragiten dieten neurri jakin batzuk hartzea badagokio udalari.


Parkeko Hotela 1882an eraiki zen, 1846tik bertan zegoen bainuetxe bat goitik behera berritu zenean. Hotela, Severino de Achúcarro arkitektoak diseinatu zuen. Multzo osoa parke baten integratu zuen, eta Europako beste bainuetxe batzuen ereduak hartu ziren erreferentzia gisa.

Zaldibarko bainuetxeak ur sendagarriak eta terapeutikoak eskaintzen zituen, eta, bertako instalazioei esker,

garaiko aisiaren eta bizitza sozialaren gune bihurtu zen. 1920ko hamarkadan amaitu zen urrezko garai hori eta 1922an, Bizkaiko Foru Aldundiari saldu zitzaion multzoa, eta emakumeentzako ospitale psikiatriko bihurtu zen.

Bainuetxe modura eta ospitale psikiatriko izanda, bietara, herriguneko protagonista izan zen multzo osoa - bainuetxea, hotela eta parkea -, eta nortasun propioa eman zion Zaldibarri.

Zaldibarrek ondare historikoaren elementutzat hartutako eta babestutako elementu gutxi ditu, batez ere zibilak eta publikoak; hortaz, honen moduko eraikin bat galduko balitz, are gehiago larriagotuko litzateke egoera.



Goian, parkeko hotela XIX. mendearen amaieran. Behean, eraikina gaur egun.



# ATXONDOKO UDALA



[www.atxondo.eus](http://www.atxondo.eus)





## D3 Arkitektoak

Euskal ondare historikoaren birgaitzean arkitektura bulego aditua, iraunkortasun irizpideak, energia eraginkortasuna eta eskura dauden baliabideak erabiliz.

Bezeroarentzako ahalik eta emaitza hoberena lortzeko helburuarekin, proiektuak lantzeko eraikinaren informazio zehatza jasotzen dugu gaur egungo teknika modernoekin.

Horrek eraikin osoa egoki interpretatzeko aukera ematen digu, elementu historikoekin adeitsuak izanik balioan jartzeko.

## D3 Arquitectos

Estudio de arquitectura especializado en la rehabilitación del patrimonio histórico vasco, empleando criterios de sostenibilidad, eficiencia energética y economía de medios.

Con el objetivo de conseguir el mejor resultado para el cliente, empleamos las técnicas más modernas obteniendo información exhaustiva del edificio para la elaboración de los proyectos.

Esto nos permite realizar una correcta interpretación del conjunto siendo respetuosos con los elementos históricos para su puesta en valor.



 **D3**  
arquitectos

Elkartegia. Landako 4. Durango

T. 94 681 23 11

info@d3arquitectos.com

d3arquitectos.com











# Durangaldeko basoen argazkia

 Izaskun Ellakuriaga |  Txelu Angoitia





**2**018an banda marroiak gogor astindu zituen Euskal Herriko pinudiak. Eskualdean ere gaixotasunak eragin nabarmena izan zuen, eta oraindik ere badauka. Ondorioz, aurreko urteetan basogintza ereduari buruz hasitako eztabaidak areagotu egin dira. Bereziki, eukalipto landaketek eragin dute ardura. Lerrootan Durangaldeko basoei argazkia ateratzea da asmoa, eta funtsezko itaun batzuk erantzutea: Zein baso mota nagusitzen da eskualdean? Galtzen doaz baso lurrak gurean? Eukalipto zenbaterainoko arriskutsua da? Nolako bilakaera izaten dabil basogintza Durangaldean?

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasagarritasun eta Ingurumen Sailak argitaratutako 2020ko Baso Mapatik aterakoak dira datu nagusiak. Aurreko urteetakoekin batera, edo nork kontsultatzeko modua dago jaurlaritzaren webgunean ([www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)). Horrekin batera, Aranzadi Zientzia Elkartek eta EHUK burututako (Elosegi, A., Arizaga, J., Cabido, C., Larrañaga, A.) "Eukalipto-landaketen ingurumen-eragina EAEn eta inguruetan" izeneko azterlana ere erabilgarri izan da.

Durangaldea  
**31.636**  
hektareatako  
lurraldean

**% 62**  
**baso da**

Durangaldearen azalera 31.636 hektareatakoa da. 2020ko baso mapak jasotzen duenaren arabera, lurraldearen % 90 landaguneari dagokio eta zehatzago, baso azalera % 62koa da.

Baso lurrak jabetza pribatukoak ala publikoak diren ere bada azpimarratzeko gaia. Izan ere, Durangaldean, jabetza pribatukoak lur horien % 87 dira. Gehienetan lur jabetza txikiak eta zatituak dira, 2 eta 5 ha artean. Durangaldean 1989. urtetik natur parke izendapena daukan lur-eremu zabala kokatzen da: Urkiola, ia 6000 ha dituena. Urkiolako parke naturalean ere jabego pribatua da nagusi, azaleraren % 62.

Basoko arbolak espeziearen arabera sailkatu daitezke, bestetik. Gaur egun dauden 1820 espezie ezberdinetatik bi multzo nagusitan sailkatu daitez-

ke: koniferoak eta hostozabalak. Paisaiari begirata igarrian dago zein nagusitzen den gure lurraldean, koniferoak (baso lurren % 70). Koniferoen artean 10 espezie baino gehiago azaltzen dira, baina gurean radiata pinua (intsinis pinua ere deitzen dute) da jaun eta jabe, eta besteekiko alde handiarekin. Izan ere, 11.726 hektareata (baso azaleraren % 59,7) zabaltzen den espeziea da Durangaldean. Hostozabalen artean, baso misto atlantiarra da nagusi. Lehendik egondako pinu landaketak moztu eta gero, edo landa eta soloak bertan behera utzi ostean, berez ernetako zuhaitz mota ezberdinekin osotutakoa da. Inguruan dauden hazietatik sortutakoak, eta beraz, beste guztien arteko nahaste bat. Gehienetan agertzen den espeziea, gainera, haritza da. Azkenik, aipatzekoa da, hostozabalen artean eukalptoia ere ageri dela gure eskualdean, baso lurren azaleraren % 5,5.











Gizartea kaletartu ahala, landa edota baso landaketa izandakoak bertan behera izteko joera aspaldikoa da. Hala ere, azken 30 urteetan nabariagoa izan da. Azken 15 urteetako datuak konparatuta, Durangaldean, 782 hektareako baso azalera galdu da. Lur horietako zatirik handiena larre eta nekazaritzarako izan dira. Azpimarratzekoa da, bestetik, azalera gehien jaitsi den espeziea radiata pinua izan dela

(15 urtetan 2821 ha galdu ditu), eta bestaldean, azalera gehien irabazi duen zuhaitz moten espezieak euskaliptoa (931 ha) eta hostazabal autoktonoak (877 ha) izan dira.



Ardura handia sortu dute azken urteetan eukalipito landaketek (% 5,5), batez ere banda marroiaren eraginez landaketak ugaritu direnetik. Bizkaiko beste lurraldeetan gertatu den maila berean ez, baina Durangaldean ere eukalipito landaketak hazi egin dira. Aranzadik eta EHUK elkarlanean argitaratutako lanak ere komunikabideetako paper-orri eta telebista zein irratiko minutuak bete ditu. Bizkaiko Batzar Nagusietan sarri eztabaidatu den gaia ere izan da. Udaberrian, eukalipito landaketak mugatzeko neurri berriak abiatzeko asmoa azaldu zuten foru arduradunek. Gogorarazi zuten, azken 12 urteetan ez dira eukalipito landaketak diruz lagundu. Hala ere, gaur egun ez dago legez eukalipito landaketak galarazteko tresna juridikorik garatuta.















# Baso Eredua

Baso eredua dago gaur egun eztabaidagai modu batera edo bestera landagunearekin harreman estua duten sektoreen artean. Monolaborantza arbuizaten dute batzuk, basoei baso izaten utzi behar zaiela diote beste batzuk, bioekonomiaz berbetan hasi dira sektorean eta ia gehienek baso autoktonoaren alde egiten dute. Kontua natura eta baso-industriaren arteko oreka nola uztartu daitekeen asmatzea da.

Egur eraldaketa industria garatuta dago eskualdean eta neurri handi batean bertoko koniferoen egurra-ekin lan egiten dute. Durangaldean, adibidez, sei zerrategi txiki eta paper-pasta egiten duen enpresa handi bat daude. Bertoko enpresek kontsumitzen duten egurraren % 70 bertako pinua da (EAEko datuak dira, Baskegur egur sektorea ordezkatzeko duen elkarte profesionalak emanda). Gehien bat, inguruko industria jardueretan behar izaten dituzten enbala-

tze gaiak ekoizteko erabiltzen da. Sektoreak mahaigaineratu duenez, egurraren erabilpena oso urria da gure gizartean. Eraikuntzarako, altzarigintzarako, automoziorako edota beste edozein erabilpenarako egurra ez den beste material batzuk ugaritzen direla azpimarratzen dute. Eta bioekonomia aldarrikatzen dute; bioekonomiak, naturaren eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako garapen-eredua ezarri nahi duelako. Basoaren jasangarritasunari begira (balio soziala, ekonomikoa eta naturala) lan egin beharko litza-tekeela diote.



# eztabaidagai



Jasagarritasunaren, eta bereziki, biodibertsitatearen zaintzari erreparatzen diote beste askok. Lurgai Fundazioa izan daiteke horren adibide garbia. 2002an sortu zuten bost pertsonek erakundea, Bizkaian ingurumenarekin arduratuta eta batez ere basoen egoerak arduratuta. Pinuen landaketa masiboak azpimarratzen dituzte, eukaliptoekin azken urteetan larritu bagara ere, pinua gure kulturaren parte dela onartzeak eta "pinufikazioak" ez duela ardurarik sortu kezkatzen ditu. Undabaso da euren proiekturik eza-gunena. Besteak beste, lurretako Oromiño auzoko lurretako batzuk dira Undabasoko parte. Lurrak erosi eta basoa bere horretan hazten utzi edota bertoko espezieen landaketak sustatzen dituzte. Gaur egun, 165 hektareatako lursaila da Undabaso.

Eta, aldizkarirako lana amaitzear dugula, Durangaldeko Basoak ekimenaren berri izan dugu. Euskal Herriko beste hainbat herri eta eskualdetan bezala, eskualdeko basoen egoerak kezkatuta batu dira

hainbat lagun. Ekimenera batu gura dutenentzat ere durangaldekobasoak@gmail.com helbide elektronikoa jarri dute eskura.

Durangaldeak basoarekin hartueman estua izan du beti, eta horrela izaten jarraituko du seguruenik. Basoak behar ditugu naturaren biodibertsitateari eusteko eta gizarte jasangarri baten ardatzetako bat ere badirelako. Basoek egin beharreko kudeaketan daude ikuspegi ezberdinak eta kudeaketa hori nolakoa izan behar duen. Baina guztiok nahi dugu Durangaldeari argazkia ataratzen diogunean basoa ere argazkiko zati izatea.

Durangaldean pinua da nagusi gure basoetan. Eukalipto basoak ere badira, baina ez omen da larritzeko kopuruetan hazi, nahiz eta kalteak bio-niztasunera begira asko dituen. Baina, eragile ezberdinen ahaleginez, bertako arbola espeziei lekua egiteko ekimenak gehiago dira.

















A close-up photograph of a eucalyptus tree trunk. The bark is peeling, revealing a smooth, light blue-green inner layer. The outer bark is a mix of reddish-brown and greyish-brown. The background is dark, showing the silhouettes of other tree branches.

# Eukaliptoaren kalteak

Eukaliptoa oso arin hazten dan espezia da, 10 eta 15 urtetan mozteko prest dago eta gero berriz etortzen da bere kabuz. Baina datu horren atzean atzeman daitekeen errentagarritasun ekonomikoak naturan eta bide dibertsitatean arrisku eta kalte handiak jartzen ditu.

Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoan sartzeko gomendioa sarri egin da sektore ezberdinetatik. Gaur gaurkoz baina ez dauka horrelako izendapenik.





Arturo Elosegi, Juan Arizaga, Carlos Cabido eta Aitor Larrañagak burutu zuten 2020ko urtarrilean Aranzadi zientzia elkartearen eta EHUren arteko elkarlan batetik “Eukalipto-landaketen ingurumen-eragina EAEn eta inguruetan” izeneko txostena.

Eukaliptoia ingurumenarentzat kaltegarria zela ondorioztatu zuten, besteak beste, berezkoak dituen ezaugarriengatik. Arbola berezia da. Gerizpe gutxi izaten du, hostoak bertikalean eskegita izaten dituelako. Hidrofobia be bada beste ezaugarrietako bat: hostoek isurtzen duten eta nabaria izaten den usainaren sorburu den olioaren ondorioz, urak laban egiten du eukalipto azpiko lurzoruetan. Horrek, eurite eta sikate uneetan, muturreko egoerak sortzea ahalbidetzen du. Olio hori, gainera, animalientzat ere toxikoa da. Ikerketan frogatu zuten hori, eta anfibioetan atzeman zuten eragin kaltegarria.

Anfibioak dira gure basoetako biodibertsitate gaileraren iragarle nagusiak. Gainera, eukaliptoen landaketek hidrologian eta higaduran ere ondorioak izan ditzakete, sortzen duten orbelak eragin handia duelako erreketako komunitate biologikoan.

Aipatutako azterketan 30 aldagairi begirako datuak bildu ziren, eukaliptoek ingurumen-eragina zein neurtzeko. Emaitzek sistematikoki erakutsi zuten eukaliptoek ez dutela eragin positiborik.

**Izaskun Ellakuriaga**  
Kazetaria





# ERTIBIL BIZKAIA 2021

**Bilbao**  
**Rekalde Aretoa**  
**Sala Rekalde**

Uztailak 15 - urriak 12  
15 julio - 12 octubre

**Sestao**  
**Erakusketa Aretoa**  
**Sala de Exposiciones**

Urriak 13 - azaroak 4  
13 octubre - 4 noviembre

**Elorrio**  
**Iturri Kultur Etxea**

Azaroak 5 - 19  
5 - 19 noviembre

**Balmaseda**  
**Horcasitas Jauregia**  
**Palacio Horcasitas**

Azaroak 20 - abenduak 13  
20 noviembre - 13 diciembre

**Barakaldo**  
**Udal Erakusketa Aretoa**  
**Sala Municipal Exposiciones**

2021eko abenduak 14 - 2022ko urtarrilak 7  
14 diciembre 2021 - 7 enero 2022





# ARGITALPENAK PUBLICACIONES

## BIZKAIKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

**DENDA • PUNTO DE VENTA**

Diputazio kalea 7, 48009 BILBAO

Tel: 944066968/944066969

**Ordutegia • Horario: 08:30-14:00**

(Astelehenetik ostiraletara • Lunes a viernes)

**KATALOGOA • CATÁLOGO**

[www.bizkaia.eus/argitalpenak](http://www.bizkaia.eus/argitalpenak)

Katalogoan **500** izenburu inguru  
kontsultatu daitezke, hainbat gairi buruzkoak

En el catálogo se pueden consultar alrededor  
de 500 títulos de temática variada.









# La Capilla Sixtina de Durangaldea

La capilla neorrománica del Hospital de Zaldibar

Itxaso Martelo - Sonia Polo - Enrique G. Arza | Txelu Angoitia





Exterior de la capilla del Hospital de Zaldibar.

**E**n la anteiglesia de Zaldibar se conocía desde antiguo la eficacia de cinco de sus manantiales en la curación de erupciones de la piel y de las afecciones reumáticas, lo que propició que desde 1844 existiese un balneario que daría servicio hasta 1923, cuando la Diputación Provincial de Vizcaya, ante la necesidad de dar una solución al problema de hacinamiento que se vivía en el “*sanatorio para alienados*” de Bermeo, lo reconvirtió en un manicomio para mujeres. El cuidado de estas pacientes se encargó a la orden de las Hermanas de la Caridad.

Con fecha del 6 de junio de 1925, la Diputación publica en su boletín el concurso para la construcción, bajo la dirección del arquitecto del Señorío Diego de Basterra, de “*una ermita para servicio de las enfermas y Hermanas del manicomio de Zaldibar*”. Se presentaron tres ofertas, siendo elegida para ejecutar las obras la misma Sociedad que realizó la adecuación del antiguo balneario en manicomio. El plazo estimado por el arquitecto para la conclusión fue de 6 meses.





📷 Vista del transepto derecho (con la escena de la Santa Cena), desde el transepto opuesto.



📷 Artesonado parcialmente policromado en el transepto izquierdo.





📍 Ábside con las escenas de la Trinidad Terrenal, los Santos Parientes, la Huida a Egipto y referencias a la Eucaristía. En el centro, la Virgen Milagrosa.

En el proyecto se subrayaba que las obras de vidriería emplomada, decoración interior y la talla de madera podrían ser encargadas directamente por el arquitecto. El importe final ascendió a 87.789,19 pesetas, y su ejecución se realizó entre julio de 1925 y noviembre de 1926. No obstante, los trabajos de adecuación de los espacios, así como la decoración interior se alargaron en el tiempo.

La Capilla, dedicada a la Virgen Milagrosa, es de planta latina con ábside semicircular enriquecido con ocho vidrieras de colores en sus vanos, bóveda de tres roscas y amplio presbiterio. Destaca el coro,

que dispone de una balaustrada de madera tallada. En cuanto a su fachada principal, se observa un ábside semicircular con vanos de arco de medio punto, con unas columnas esculpidas y molduras que incorporan decoración con diversos motivos.

La espadaña queda coronada por una veleta y cruz de forja. La adquisición de la campana se demoraría hasta 1943. En el dintel de la puerta de acceso a la capilla se inscribió, previa consulta a Resurrección María de Azkue, el lema: AMA SAMUR OREK MAGALPETU GAIZUZ.





📷 Cruces en las bóvedas e inscripción en el dintel de acceso a la capilla.





📷 Vista del crucero, arco triunfal y ábside.







# Juan de Aranoa Carredano

**La decoración de los muros de la capilla es obra del pintor Juan de Aranoa Carredano considerado como una de las principales figuras del arte vasco del siglo XX.**

Aranoa, que nace en 1901 en un moderno Bilbao de gran vitalidad social, cultural y artística, realiza sus

estudios en la Escuela de Artes y Oficios de la villa bilbaína, en aquel momento centro referencial en innovaciones y tendencias europeas y cantera de toda una generación de artistas emblemáticos del considerado "Arte Vasco".

Continúa su formación realizando un viaje iniciático que le lleva a París e Italia, donde descubre desde el arte clásico a las visiones más actuales, y que le permite un profundo conocimiento y comprensión de Cézanne, determinante en su devenir artístico.






Su aventura europea finaliza al tener que regresar para hacer el servicio militar y una vez realizado, el artista comenzará con sus trabajos y exitosas exposiciones.

En 1927 se produce el salto definitivo en su carrera y, sobre todo, en su relación con el municipio de Zaldibar donde se le encarga la realización de las pinturas al fresco del presbiterio de la capilla del Sanatorio, las cuales inicia en 1928, y que se completarán posteriormente con el Vía Crucis y Los Misterios. Dos años después, al tener conocimiento de que la decoración del resto de la capilla está inac-

bada, se ofrece a finalizarla por un precio simbólico debido a su gran interés en esa obra.

Cuando en 1936 estalla la guerra civil, Aranoa y su familia marcharon a Francia regresando al finalizar el conflicto, pero el artista no se encuentra cómodo con el nuevo régimen y finalmente decide exiliarse a Argentina, donde tendrá un gran reconocimiento.

Desde este momento, su actividad artística y vital le llevó a constantes viajes al País Vasco hasta que se produjo su fallecimiento en Olivos (Argentina) en 1973.



Coronación de la Virgen en la bóveda central.



# Iconografía

**Juan de Aranoa plasmó en la capilla de Zaldibar un programa iconográfico que, a modo de catequesis, narra la vida de Jesús e, indirectamente, la de la Virgen María.**

En concreto hace un recorrido por el llamado Santo Rosario, que incluye los Misterios Gozosos (la encarnación y parte de la infancia de Jesús), los Miste-

rios Luminosos (su vida pública), los Misterios Dolorosos (la Pasión) y los Misterios Gloriosos (desde la Resurrección a la Coronación de la Virgen). Además, realiza en la nave las catorce escenas que componen el Vía Crucis, y a la Virgen y al Niño sedentes en el coro.

En el eje que crean el ábside, el crucero y el coro, se sitúan tres de los frescos que con más detalle se van a describir:

La imagen que preside el altar es la de la Virgen Milagrosa, venerada por las Hijas de la Caridad, congregación de origen francés a la que pertenecían las monjas que se hallaban en el hospital de Zaldibar. Es por esto que se piensa que la advocación de la






capilla fuera ésta y no la que se ideó primero: la Andra Mari de Zaldibar.

En el ábside, en torno a la Virgen Milagrosa, se suceden escenas de la infancia de Jesús y elementos que aluden a la eucaristía. Además, en esta zona de la cabecera, en la rosca central del arco triunfal, se suceden los Misterios Gozosos y los Misterios Dolorosos.

En la bóveda central, Aranoa sitúa la Coronación de la Virgen en un paisaje rocoso. La disposición ascendente de elementos y figuras hace que se aluda a un ambiente celestial. En la parte superior se encuentran Dios Padre, Cristo, María y el Espíritu Santo formando un esquema cuatripartito.

En la parte media e inferior, diferentes personajes asisten a este acontecimiento. Susgestos, la presencia de un ángel y el uso de un nimbo plateado, hacen patente que se encuentran ante un hecho solemne. Y, en esta zona del crucero, en torno a la Coronación, también se ubican las escenas de los Misterios Gloriosos.

Es en el coro donde recrea un ambiente más orientalizante y menos expresionista. La Virgen y el Niño sedentes se ven rodeados por un ambiente áureo creado a través de la imitación de teselas doradas. Es la representación de María como madre del Señor, como intercesora, y es la conocida como la Virgen Kiriottissa bizantina, que fue difundida a Occidente a través del arte románico.



📍 Vista del transepto derecho, el crucero, la nave, y el coro. En los muros de la nave se disponen los episodios del Vía Crucis.





📷 Vista parcial de la Coronación de la Virgen.  
Arriba: Ventana en el brazo derecho del transepto.





📷 Vista parcial de la Ascensión.  
Arriba: Semicúpula sobre el ábside.





📷 Bautismo de Jesús por Juan Bautista, realizado por Patxi de Aranoa.



📷 La Santa Cena, realizada por Juanjo de Aranoa.





📖 Aparición de la Virgen Milagrosa a Catalina Labouré, y vista parcial de las escenas de los Santos Parientes y la Huida a Egipto. Abajo: Letanías del Santo Rosario talladas en los bancos de madera de la capilla.

En el trabajo que realizó en esta capilla es innegable la influencia de artistas como Cézanne (el primitivismo, el afacetamiento) o el Greco (el expresionismo, el sintetismo, la luz espectral, figuras miguelangelescas). Además, sus viajes al norte de Italia le permitieron conocer toda la influencia bizantina (en ciudades como Rávena) y los frescos renacentistas. También se aprecia el poso de su maestro Aurelio Arteta en el modo de representar personajes que la tradición artística ha denominado como “tipos vascos”, y del que aprendió la técnica del fresco (quien, a su vez, lo hizo de Manuel Losada).

Todas las imágenes que crea Juan de Aranoa están ubicadas en el ábside, el crucero, la nave y el coro, pero, se produjo un hecho curioso: la decoración de la capilla fue continuada en los años 80 por el hijo y el nieto de Juan de Aranoa. El primero, Juanjo, recreó la Santa Cena y, el segundo, Patxi, plasmó el Bautismo de Jesús por Juan Bautista. Estas escenas se ubicaron en el brazo derecho del transepto, quedando de esta manera toda la capilla decorada con imágenes a excepción del brazo opuesto.

Por último, mencionar que el Hospital de Zaldibar perteneció a la Diputación Foral de Bizkaia hasta que en el año 1985 fue transferido a Osakidetza. En la actualidad, se encuentra integrado en la Red de Salud Mental de Bizkaia, y en mayo de 2016 el Gobierno Vasco cedió 3448 m<sup>2</sup> del terreno del hospital al Ayuntamiento de Zaldibar para destinarlo a zona verde de uso público; no obstante, la capilla sigue perteneciendo al Gobierno Vasco/Osakidetza.

#### **Itxaso Martelo García de Garayo**

Historiadora del arte, Sociedad de Ciencias Aranzadi

#### **Sonia Polo Escobes, historiadora**

Sociedad de Ciencias Aranzadi

#### **Enrique G. Arza**

Historiador. Red de Salud Mental de Bizkaia/Osakidetza



# AZTERLAN


MEMBER OF BASQUE RESEARCH  
& TECHNOLOGY ALLIANCE



METALURGIA IKERKETA ZENTROA  
CENTRO DE INVESTIGACIÓN METALÚRGICA  
RESEARCH CENTRE  
METALLURGY



METALURGIAN EZAGUTZA AURRERATUA  
INDUSTRIAREN ETA GIZARTEAREN ZERBITZURA



Lehiakortasuna  
bultzatuz

Jasangarritasuna  
sustatuz

Pertsonekin  
eta inguruarekin  
konprometituta



Aliendalde Auzunea, 6, 48200 Durango (Bizkaia)  
azterlan@azterlan.es / 946 215 470




www.azterlan.es





GOZATU.EUS





**TUMATXA!**

GAZTEAK

tumatxa.eus



 Javier Puertas Juez - Josune Aranguren Zatika

 Txelu Angoitia - Jon Roman

# Elorrio, harria, egurra eta burdina

Piketatik  
sarrailgintzara





## Lehengaiak transformatzeko prozesuari esaten diogu industria

**E**nergia, makinak eta langileak behar dira horretarako. Herriak goitik behera eraldatzen dituzten faktoreak dira, guztiak. Landa eremuetan zura, linua, eta buztina lantzen zirela erakusten digute indusketek ezezik, kanta zaharrek ere. Beste leku batzuetan bezalaxe, Elorriion ontziak eta lanabesak base-erri edota auzo bakoitzean sortzen ziren, kontsumorako eta biziraupenerako, soberakinik eta merkaturatzerik gabe, hasiera batean. Harrigarria da, hala ere, lizar basoen ugaritasunak eta kokapen geografikoak eman zioten munduko zenbait ejerziturentzako armak fabrikatzen hastea eta, ekoizpen bideari jarraiki, herriaren nortasuna industriari mendetan zehar idazten joan izana inguruko meategietako burdinari esker. Elorriarrek hiribildua sortu zutenean, bertan baserriko lanak egiten irauten bazuten ere, artisau-lanetan hasi ziren eta, honela, herriaren historia burdinazko letrekin idazten.



 Elorrioko harresiko atea Arespakotxaga Jauregian.







📷 Velázquez-ek *La rendición de Breda* margotu zuenean (1635), Elorrioren lantzak ekoizten ziren 100 urte lehenagotik, irudikoa bezalako armadak hornitzeko.



XVI. mendearen amaieran, Elorriok pikak eta lantzak egiten zituen industria oso garatua zuen. 1575eko dokumentuetan adierazten denez, lantzagile ospetsuen sutegietatik hilero 3.000 pika eta 1.500 lantza ateratzen ziren. Badakigu, Karlos V.a eta Felipe II.aren tropa inperialak Elorriotik hornitu zirela, hauen artean, Flandriako tertzioak. Beste zenbaki harrigarri bat: 1555ean, Joan García de Leanizek armagintzako beste bost maisurekin, Joan III.a Errukiorra Portugalgo erregearentzako 1.500 koselete (armadura oso) eta haien kasketak (kaskoak) ekoizteko hitza eman zuen.

## Meatzaritza eta armagintza

Erdi Aroan hiribildua sortu eta ehun urte eskasera herria erre egin zenez, sasoi berriek zekarten harriarekin hasi ziren kaleko etxeak berriz eraikitzen eta egurra baztertzen. Aldi berean ari ziren elorriarrak aipatu dugun arma zurien eta suzko armen fabrikazioan gero eta lan espezialduagoetan trebatzen. Gonge-tako meategietatik ateratzen zen Arrasateko altzairu ospetsua, frantsesen, ingelesen eta flandestarren ezpaten enkarguei aurre egin ahal izateko. Ezpatak, bihotzak, armadurak, arka-buzak, mosketeak, bonbak, kanoiak, lantzak eta pikak fabrikatzen zituzten elorriarrek.




📍 Giralda (Sevilla) – Sortzez Garbia (Elorrio). Kanpandorrearen lanetarako azken funtsak Sevillatik etorri ziren “Giraldaren erara eraikitzeko” zioen agindu batekin.

## Indietarako monopolioa

